

AEK-k prest du 24. Korrikaren ibilbidea. Euskararen aldeko ekimen erraldoia Atharratzetik aterako da martxoaren 19an, eta, hamaika egunez Euskal Herri osoa igaro ondotik, Bilbon amaituko da, 29an. Gutxi gorabehera 460 herritatik igaroko da. Xehetasunak aplikazioan eman zituzten atzo eskusiban, eta bertan eta Korrika.eus-en kontsulta daitezke.

Maidar IANTZI GOIENETXE

Inoizko parte-hartzaileena izateko helburua jarri dio AEK-k aurtengo Korrikari. Atzo plaza-ratu zuten ibilbidea. Xehetasun guztiak Korrika.eus web-gunean eta bertatik doan deskarga daitezkeen aplikazioan daude. Bidez bidez, euskara garelako erakutsiko du ekimen erraldoi honek 11 egunez eta 10 gauetz. 2.175 kilometro eta 3.436 lekuko hartze eginen ditu euskararen herrian zehar martxoaren 19tik 29ra. 460 herritatik igaroko da.

Ohitura denez, aitzineko edizioa bukatu zen lurraldean abiatuko da, Zuberoan. Atharratzetik emanen dio hasiera Korrikari martxoaren 19an, osteguna, 15.30ean, hainbat arrazoirengatik; nagusia, hauex: Korrikaren «itzalguneetako» bat da Zuberoako Basabürüa eskualdea. Izan ere, lasterraldia ez da bertatik pasatzen, abiatzeko ez bada. Handik iragan zen lehen eta azken aldia 1985ean izan zen. Alta, euskara sustatzeko eta karrikartzeko beharra sekula baino agerikoagoa da bertan.



«Euskara gara» leloa lau haizeetara zabalduko du 24. Korrikak. Irudian, Gasteizen egindako aurkezpena. Gorika RUBIO | FOKU

Bilbo, helmuga Amaierari dagokionez, eta Korrikaren bertze ohitura bati segituz, bost hiribururen artean txandakatzten da: Baionan finitu zen azkena, eta 24. Korrikan Bilbok izango du azken metroak ospatzeko ohorea, martxoaren 29an, igandearekin. Goizeko zazpiak pasatuta sartuko da Bizkaiko hiriburuan. Eguerdian, lekuko barreneko mezu sekretua irakurriko dute, euskararen herritik eskuz esku pasatu dena. Gero, egun osoko amaiera-jai handia eginen da.

Hiriburuen artean, Maule bisitatuko du lehenik Korrikak: Atharratzetik atera eta 16.45ean helduko da horra. Donibane Garazin, hurrengo egunean, martxoaren 20an, ostirala, sartuko da, gaueko ordu txikietan (02.50ean). Iruñera bazkalorduan iritsiko da betebetan, 13.50ean, martxoaren 22an, igandearekin; Donostian martxoaren 25ean, asteazke-

APLIKAZIOA

Aplikazioa berrikuntzekin dator. Korrika zuzenean non dabilen ikusteko aukera emanen du furgonetaren geolokalizazioaren bidez. Gainera, zuzeneko irudiak eskainiko ditu 24 orduz. IOS zein Android bertsioentzat dago eskuragarri, Korrika.eus-en, guztiz doan.

HIRIBURUAK

Hiriburuen artean, Maule bisitatuko du lehendabizi Korrikak. Donibane Garazin, hurrengo egunean, martxoaren 20an sartuko da, ordu txikietan. Iruñera bazkalorduan iritsiko da, 22an; Donostian 25ean ibiliko da. 27an Gasteizen lurreratuko da, eta martxoaren 28an Baionaren txanda iritsiko da.

nean, ibiliko da. 8.15ean Altxan, 9.30ean Intxaurrendon, 11.00etan Amaran, Parte Zaharrean eguerdian... Atsedetik hartu gabe, 27an, ostirala, Gasteizen lurreratuko da euskararen aldeko ekimen erraldoia, eta martxoaren 28an, larunbatean, Baionaren txanda iritsiko da, 20.30ean.

Herriak Lehenbiziko egunean, Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdi zeharkatuko ditu Korrikak. Gauerdiak Makean harapatuko du eta goizeko ordu txikietan Nafarroa Garaian sartuko da. Pirinioetan ibiliko da ostiralean, eta Erribera bustiko du pozez larunbatean.

Igandean, Gares, Obanos, Barañain, Lizaso, Iraizotz eta Lizarra bisitatuko ditu, bertze aunitzen artean, eta astelehenan Araban sartuko da. Nafarroa itzuli, eta gaueko bederratz eta erdiak inguruan Gipuzkoara helduko da. Irundik Berara, Nafarroara, igaroko da eta Zugarramurdi Sarara, Lapurdira. Asteazkenean, Gipuzkoan eta Bizkaian ibiliko da eta ostegunean Bizkaian segituko du: Lekeitio, Ibarange-lu, Gernika-Lumo, Bermeo, Getxo, Barakaldo, Zalla... eta Balmasedatik Artziniegara, Arabara. Ostiralean Laudiotik Arakaldora joanen da Bizkaia bueltan eta larunbatean, Leintz Gatzagan barna, Gipuzkoan sartuko da. Azken eguna Bizkaian eginen du.

Korrikaren aplikazioak lasterketa zuzenean non dagoen jakiteko aukera emanen du furgonetaren geolokalizazioaren bidez. Gainera, zuzeneko irudiak eskainiko ditu 24 orduz.